

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko irailaren 24an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-08-27KO ETA 2024-09-12KO UDAL BILKURETAKO AKTEN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2024-08-27ko eta 2024-09-12ko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abuztuaren 28an, 42/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abuztuaren 28an, 43/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko abuztuaren 27an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. Angel Rekalde Goldaraz

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abuztuaren 29an, 44/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Angel Rekalde Goldarazi eskatu duen aprobetxamendua (bere barrutian eroritako herri-lurreko haritza) baimentzea eta eskatzaileak egindako balorazioa onartzea (60 euro).

4. Laura Huarte

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko irailaren 10ean, 45/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Laura Huarteri Beteluko Udaletxeko erabilera anitzeko gela erabiltzeko baimena ematea urritik aurrera, astearteetan, 15:30etatik 18:30era euskara praktikan jarri ahal izateko.

5. Francisco Javier Mindeguia Perez de Obanos

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko irailaren 13an, 46/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Francisco Javier Mindeguia Perez de Obanosi hirigintza lizentzia ematea Beteluko Ixurre etxean teilak aldatu eta margotzeko.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1.- Ander Arraztio Saralegi eta Rakel Estanga Beraza

Ander Arraztio Saralegik eta Rakel Estanga Berazak idatzia aurkeztu dute Beteluko udalean. Idatziaren arabera, hainbat ahuntz haien lursailetan sartu eta kalteak eragiten dituzte. Ahuntzen jabeekin akordio batera iristen saiatu dira baina oraingoz adostasunik lortu ez denez Udalari laguntza eskatu diote jabeekin hitz egin eta irtenbide bat bilatzeko.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Eskatzaileei jakinaraztea Beteluko Udala bi aldeekin elkartuko dela irtenbide egokiena bilatzeko asmoz.

2.- Kirol Mankomunitatea

Kirol Mankomunitateko teknikari Irati Ibarbiak jakinarazi du ez dutela toki egokirik aurkitzen jubilatutako talde batekin jarduera saioak egiteko. Zehazki, Beteluko frontoian aritzeko eskaera egin dio Beteluko eskolari baina erantzuna ezezkoa izan da. Udalari proposatu dio denak elkartzea, hau da, Beteluko Udala, Beteluko eskola eta bera beste aukera batzuen artean.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Kirol Mankomunitateari jakinaraztea Beteluko Udala eskolako zuzendaria den Ion Altunarekin elkartu dela eta zein egun zeuden libre adierazi dizkiola. Beraz, Beteluko Udalaren proposamena da libre dagoen egun horietan egitea jubilatuekin egin beharreko jarduerak.

4.- 4/2024 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 4/2024 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua: 1 3380 78200 “festa batzordeari aparteko laguntza”: 2.000,00 euro.

“IDAEko dirulaguntza” 1 72000 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 2.000,00 euro

2. Ezohiko kreditua 1 9310 2277001 “Kontabilitatea egiteko zerbitzua”: 4.500,00 euro.

“Mendi aprobetxamenduaren salmenta” 1 55440 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 4.500,00 euro

3. Ezohiko kreditua 1 2391 22602 “Berdintasun kanpaina”: 2.000,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako” 1 87000 sailarekin finantzatua: 520,74 euro

Mendi aprobetxamenduaren salmenta” 1 55440 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 1.479,26 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2024ko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalean udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

5. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1. 295E/2024 Ebazpena, Energiaren, Enpresa I+G+Bren eta Ekintzailetzaren zuzendari nagusiarena

Udalbatzari Energiaren, Enpresa I+G+Bren eta Ekintzailetzaren zuzendari nagusiaren 295E/2024 ebazpena jakinarazi zaio. Horren arabera, bi dirulaguntza eman zaizkio Beteluko Udalari: 40.000 euro Beteluko frontoi gainean plaka fotovoltaiakoak jartzeko eta 2.776,95 euro energia audiotretza egiteko.

6. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Wikai	Abuztuko kontsumoa	112,12 €
Venus Campos Walsh	Abuztuko gastua	2.833,41 €
Lyreco	Materiala	180,70 €
IDM medical	Abuztuko mantenua	128,84 €
Angelines Carrillo Ruiz	Abuztuko uraren kontrola	90 €
Iberdrola	Udaleko pisua Abuztua	8,62 €
Iberdrola	Urberoa Abuztua	6,31 €
Amazon	Llave perro,...	30,20 €
Amazon	Higrómetro	14,34 €
Amazon	Elevadores de muebles,...	35,90 €
Amazon	Deshumidificador	236,34 €
Amazon	Cinta de butilo,...	38,97 €
Amazon	Tayg extensible	95,98 €
Tu-co	Asiento de caucho	129,07 €
Ikea	Flysta	99,88 €
Greenice	Plafón, detector de movimiento,...	92,30 €
Ractem	Estantería	334,57 €
Tindu margoak	Cubeta,...	136,43 €
Urzubi	Materiala	193,38 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa	558,73 €
Goiener	Udaletxeko abuztua	278,92 €
Goiener	Eskolako abuztua	503,61 €
Bandomovil	2024 abuztutik 2025 abuztura	114,95 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 54-2024	574,75 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 52-2024	297,10 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 53-2024	90,75 €
Txomin Amundarain Orbegozo	TB-2024-F 135	317,63 €

Baiza Motor	F. I 24/2418	140,99 €
Brico Depot	F. material erosketa	189,39 €
Lorentxo Otamendi Artola	F. abuztuko mugikortasuna	117,50 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 92	692,12 €
Ascensores Arga	F. 10440	203,28 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 95 argiteri publikoaren konponketa	561,44 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 96 eskolako erlojuen programazioa	403,97 €
Serlimpia	F. 240381 abuztuko garbiketa	214,17 €
Jesus M ^a Alcasena	F. 103	130,68 €
Ofico	F. iraileko aholkularitza	126,92 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 58-2024	1.659,97 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 57-2024	1.124,21 €
Ayapress	Hezkuntzako panelak	6,10 €
360 imprimir	Pegatinak silla	20,53 €
Mercacesped	Eskolarako belarra	411,80 €
Amazon	Plastifikadora	35,99 €
Amazon	Plastifikadorarako orriak	19,37 €
Amazon	Arbela	34,39 €
Tomro	Biomboa	71,98 €
Amazon	Bandejak	45,90 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Rosa Estanga Arrizubieta	Uztaileko garbiketa produktuak	17,70 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Uzataileko janariak	48,66 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. 15/2024 materiala	48,70 €
Eroski	Sorgintxo (kutxatik)	80,89 €
	DENETARA:	13.940,4
		5 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortziak eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.